



6. BEZEROAREKIKO HARREMANAK

Komunikazio zintzo eta etengabea funtsezkoa da bezeroekin. Haiek interesa izaten dute jakiteko nola erabiltzen diren baliabideak, nola egiten duten aurrera proiektuek, eta zer erabakitan sartzen diren funtsak edo ahaleginak; horregatik, emango diegu haiek behar edo eskatzen duten informazio guztia.

Elkarteari eusten eta zentzua ematen diotenak kideak, bolondresak eta arropak jasoko dituztenak direnez, haien beharrak entzuteko eta balioa emango dieten zerbitzuak eskainiko ditugu. Beraz, beti irekita egongo gara haien aholkuak edo beharrak entzuteko, bai aurrez aurre, bai gure web-orriaren bidez. Bertan, galdera irekiak edo erantzun zehatzagoak izango dituzten galderak egiteko atal bat izango dugu. Gure web orrian ere, posta elektronikoko bat eta telefono-zenbaki bat izango ditugu gurekin harremanetan jartzeko aukera izan dezaten.

Noizean behin, elkarteak bezeroaren gogobetetze-inkestak egin ditzake, kideei kontsumitzaileen iritziak hobeto ezagutzen laguntzeko. Bezeroek zer pentsatzen duten jakitean, bezeroarekiko harremana sendotu dezakete epe luzera

Kideei beren gogobetetze-mailari eta hobekuntza-arloei buruz etengabe entzuteak ahalbidetuko du elkarteak eta era berean, egitasmoaren arrakasta bermatuko du. .

Web-orrian, eskuragarri ditugun arropa guztiak ikusi ahal izango dituzte, eta, beraz, tailen eta pisuen gida bat ere izango dute, hainbat argazkiz eta egoeraren inguruan informatzeaz gain, erreferentzia asko izan ditzaten.

Gure dendan hainbat probaleku izango ditugu arropa probatzeko eta aholkuak emango ditugu. Horrela, erosoago sentituko dira eta gure zerbitzuekin asebeteta eta gustora sentituko dira.

Kalitate, jasagarritasun eta etikako estandarrak sustatzean, bezeroek beren kideak enpresa fidagarri eta arduratsu gisa ikus ditzaten laguntzen du elkarteak, eta horrek azken bezeroaren leialtasuna indartzen du.

Bezero berriak erakartzeko, gure enpresa ikusgai eta erakargarri egingo dugu, egiten duguna eta zergatik den garrantzitsua azalduz. Sare sozialak erabiliko ditugu dohaintzek beste pertsona batzuei nola laguntzen dieten erakusteko, argazkiak, bideoak eta benetako istorioak partekatuz. Gainera, kanpaina sinpleak egingo ditugu arropa ematea ingurumenarentzat eta behar gehien dutenentzat onuragarria dela azaltzeko.

Influencer eta pertsona ezagunekin elkarlanean arituko gara, gure proiektuari buruz hitz egin dezaten, eta ekitaldiak antolatuko ditugu, adibidez, arropa-bilketak edo



jasangarritasunari buruzko tailerrak. Horrez gain, gure aplikazioa erabiltzeko oso erraza izango da, edozeinek arropa erraz eman ahal izateko eta zerbait onaren parte sentitzeko. Gure egitekoa modu etiko eta arduratsuan burutzen dugulako jendeak gudan konfiantza izatea nahi dugu.

